



**SALUD MENTAL
BURU OSASUNA**
EUSKADI *Fedeafes*

2023 MAIATZAK 28 HAUTESKUNDEAK PROPOSAMENAK



SALUD MENTAL EUSKADI – FEDEAFES - BURU OSASUNA EUSKADI

BURU OSASUNA EUSKADI osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonen eta senideen elkarteak biltzen dituen federazioa da. Erakundea 1987an eratu zen, eta, orduetik, kolektiboaren ordezkari eta bozeramaile moduan aritu da Euskal Autonomia Erkidegoan. 1998az geroztik aitortuta dauka onura publikoko aitortpena. Gaur egun, 12.000 pertsona baino gehiago biltzen ditu.

Gure erakundea osatzen duten elkarteak **AGIFES** (Gipuzkoa), **ASAFES** (Araba), **ASASAM** (Nerbioi Garaiko Eskualdea, Araba) eta **AVIFES** (Bizkaia) dira.

BURU OSASUNA EUSKADI

2023KO MAITZAREN 28KO HAUTESKUNDEAK

PROPOSAMENAK

Aurkezpena

2023ko maiatzaren 28an foru aldundietarako eta udaletarako hauteskundeak egingo ditugu Euskadin. Testuinguru horretan, BURU NAHASMENDUA DUTEN PERTSONEI ETA HAIEN FAMILIEI buruz jarraian adierazten diren proposamenak egingo ditugu.

Dokumentu honetan berariaz aipatuko ditugu foru eta udal esparruetako eskumenekin zerikusia duten gaiak (gizarte-zerbitzuak, enplegua, etab.). Horiek dira 2023ko maiatzaren 28ko hauteskundeetara aurkezten diren esparruak, eremu mugakide soziosanitarioak, sozioedukatiboak eta abar alde batera utzi gabe. Beraz, ez gara arituko nahasmendu mentala duten pertsonentzat funtsezkoak diren beste arlo batzuetan dauden premiez, hala nola osasun, hezkuntza eta justizia alorrez, horien eskumena autonomikoa edo Estatu mailakoa baita.

Pandemiaren ondorioz, osasun mentala ikusarazi egin da. Maiz hitz egiten da buru osasunaz komunikabideetan eta esparru politikoetan. Hala eta guztiz ere, nabarmenagoa izan arren, nahasmendu mentala duten pertsonak ez dira behar bezala artatzen eremu askotatik, eta, bereziki, eremu soziosanitariotik, arreta emateko baliabide faltak bultzada handia behar baitu. Gure proposamenak, adierazi dugun bezala, foru eta udal esparruetan eta hauteskundeetara aurkezten diren eremu horien berezko eskumenetan zentratzen ditugu.

BURU OSASUNA EUSKADIREN PROPOSAMENAK

1. BURU NAHASMENDUA DUTEN PERTSONEN ESKUBIDEAK.
2. BURU NAHASMENDUA DUTEN PERTSONEN PARTE-HARTZEA.
3. GIZARTE-ESPARRUETAN OSASUN MENTALARI ARRETA EMATEKO INBERTSIO PUBLIKOA HANDITZEA.
4. BURU OSASUNeko ARAZO LARRIAK DITUZTEN NERABE ETA GAZTEENTZAKO ARRETA: EGUNGO ETA ETORKIZUNeko ERRONKA.
5. BURU OSASUNeko ARAZOAK DITUZTENENTZAKO ENPLEGUA.
6. LANDA-EREMUEI BALIABIDEAK EMATEA.
7. GENERO-BERDINTASUNERANTZ AURRERA EGITEA.
8. IRISGARRITASUN UNIBERTSALA ETA OZTOPOAK KENTZEA.
9. FAMILIEI LAGUNTZEA.
10. OSASUN MENTALEKO ELKARTEEKIN LANKIDETZAN ARITZEA.
11. POLITIKA PUBLIKOEN ZEHARKAKOTASUNA.

1. BURU NAHASMENDUA DUTEN PERTSONEN ESKUBIDEAK

Buru nahasmendua duten pertsonen giza eskubideen esparrua Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioa da, 2008tik nahitaez bete beharrekoa.

1. artikulua adierazten duenez: *“Konbentzio honen helburua desgaitasuna duten pertsona guztiek giza eskubide eta oinarrizko askatasun guztiez osorik eta berdintasun-baldintzetan gozatu dezaten sustatzea, babestea eta bermatzea da, eta pertsona horien duintasunaren errespetua bultzatzea.*

*Desgaitasunen bat duten pertsonak epe luzerako **urritasun fisiko, mental, intelektual edo sentesorialak dituzte eta, hainbat oztoporekin elkarreaginean aritzean, gizartean erabat, eraginkortasunez eta gainerakoen baldintza beretan parte hartzeko zailtasunak izan ditzakete**”.*

Artikulu horrek bigarren paragrafoan definitzen du zer ulertzen dugun desgaitasuna duen pertsonatzat. Deskribapen horren barne daude buru nahasmendua duten pertsonak, desgaitasunaren administrazio-aitorpena izan edo ez, Konbentzioaren bigarren paragrafoak adierazten duen bezala. Beraz, Konbentzioaren babespean, buru nahasmendua duten pertsona guztien eskubideak errespetatu behar dira, eta gizartean erabat eta eraginkortasunez parte hartzea eragozten duten oztopoak ezabatu.

Politika publiko guztiak Konbentzioaren balio eta printzipioen arabera eta Konbentzioak aitortzen dituen eskubideak errespetatuz bultzatzea proposatzen dugu.

2. BURU NAHASMENDUA DUTEN PERTSONEN PARTE-HARTZEA

Buru nahasmendua duten pertsonak eragiten dieten gai guztietan parte hartzeko aukera izan dezaten eskatzen dugu. Pertsonak beren bizi-proiektuari buruz erabaki behar dute. Parte-hartzea pertsona guztientzat izan behar da, eta parte hartzeko laguntzak behar badituzte, eskaini egin behar zaizkie.

Gainera, buru nahasmendua duten pertsonen parte-hartzea eremu guztietan egin behar da. Hiri, herri eta auzoetan, tokiko jardueretan sartu behar dira, komunitatean parte hartzeko modu gisa. Horretarako, ikuspegi zabalagoa duten politikak behar dira, gizarteratze hori sustatzeko.

Buru nahasmendua duten pertsonen parte-hartzea eskatzen dugu eremu guztietan.

3. GIZARTE ZERBITZUEN EREMUAN OSASUN MENTALARI ARRETA EMATEKO INBERTSIO PUBLIKOA HANDITZEA

Nahasmendu mentala duten pertsonari arreta emateko inbertsio publikoa handitzea eskatzen dugu. Beharrezkoa da inbertsioa handitzea arretaren hainbat eremutan (osasuna, hezkuntza, etab.), baina konkretuki gizarte-zerbitzuei erreparatuz, bultzada handia behar da. Baliabideak gehitu behar dira buru nahasmendua duten pertsonentzako gizarte-

zerbitzuak behar bezala hedatzeko eta euren komunitate-eremuan artatuak izan daitezzen bermatzeko. Horretarako, **beharrezkoa da nahasmendu mentala duten pertsonentzako laguntza espezializatuak dituzten etxebizitzak gehitzea bizitza independentea sustatzeko, eta koordinazio soziosanitarioa hobetzea.**

Bizitza independenterako eskubidea desgaitasuna duten pertsona guztien giza eskubidea da, eta Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioaren 19. Artikuluan jasota dago. Giza eskubide hori egikaritu ahal izateko, zerbitzu-sare bat egon behar da, hala nola bizitza independentea bultzatzeko zerbitzuak edo nahasmendu mentala duten pertsonen arretan espezializatutako laguntza pertsonala, bai eta giza eskubide hori gauzatzen lagun dezaketen beste zerbitzu batzuk ere (Etxez Etxeko Zerbitzua, babes-etxebizitzak eta abar). Eskubide hori bermatzeko, hainbat sistema inplikatu behar dira; besteak beste, etxebizitzarena (berau eskuratzeko aukera eskuragarria bermatuz), eremu komunitarioa eta enpleguaren arloa. Baina pertsonen laguntza zuzenagoa emateko esparrutik sistema soziosanitarioa funtsezkoa izango da. Beharrezkoa izango da giza eskubide hori gauzatzeko laguntza eman dezaketen gizarte-zerbitzuak edukitzea. Buru nahasmendua duten pertsonen bizimodu independentea izateko eskubidea sustatzen duten gizarte-zerbitzuetako plangintzak gizarte-baliabide espezializatuen aurreikuspen garrantzitsua eskatzen du.

Gizarte-zerbitzuen eremuan inbertsio publikoa handitzea eskatzen dugu, dauden beharrezkoak estaltzeko eta buru nahasmendua duten pertsonentzako gizarte-baliabideak hedatzea bultzatzeko.

4. BURU OSASUNEN ARAZO LARRIAK DITUZTEN NERABE ETA GAZTEENTZAKO ARRETA: EGUNGO ETA ETORKIZUNEN ERRONKA

Gaur egun, **osasun mentaleko arazo larriak dituzten gazteen kopurua handitzeak** dakarren erronka dugu aurrez aurre. 2021ean, errealitate hori¹ aztertzen zuen azterlan bat² aurkeztu genuen, gure elkarteekin egindako barne-hausnarketaren ondorioz. Antzeman genuen gure elkarteetara gero eta gazte gehiago iristen zirela buru osasuneko arazo larriekin, **ez baitzuten erantzun egokia jasotzen** osasun, hezkuntza eta gizarte arloetatik. Testuinguru horretan, premiazkoa da gazteei babesa ematea.

Kasu askotan, **gazteek patologia duala** dute (mendekotasuna + buruko nahasmendua). Beharrezkotzat jotzen dugu biztanleria-talde horrentzako zerbitzuak planifikatzea, egoera kronifikatuagoak edo familiarren amore ematea prebenitu ahal izateko. Izan ere, halako kasuetan pertsona horiek beste egoera konplexuagoetan amai dezakete; adibidez,

¹ Azterlana 2022ko maiatzean aurkeztu zen Eusko Legebiltzarreko osasun-batzordean.
https://www.youtube.com/watch?v=7lq_f7qFhkM&t=155s

² 'Buru osasun arazoak EAEko haur, nerabe eta gazteen artean', 2021-Fedeafes <http://www.fedeafes.org/wp-content/uploads/2021/12/FEDEAFES-eus-OK.pdf>

bazterketa-egoeretan (espetxea, kaleko egoera, etab.). **Premiazkotzat jotzen dugu gazte horiekin jardutea.**

Gizarte-laguntzen eremuan, osasun mentaleko arazo larriak dituzten gazteen errealitate horrek laguntza behar du. **Erronka horri datozen urteetan heldu beharko diogu; horregatik, agenda politikoan eta instituzionalean egon behar du.**

5. BURU OSASUNeko ARAZOa DUTEN PERTSONENTZAKO ENPLEGUA

Enplegua funtsezko eremua da gizarteratzeko; hala ere, buru nahasmendua duten pertsonak zailtasun handiak dituzte laneratzeko. Horregatik, beharrezkoa da nahasmendu mentala duten pertsonen enplegua sustatzea **lanpostu publikoen bidez**, plazan ehuneko bat berariaz erreserbatuz buru nahasmendua duten pertsonentzat (beste autonomia-erkidego batzuetan bezala); **kolektibo hau laneratzeko ahalegina egiten duten erakundeei laguntza ematea; enpresak sentsibilizatzea eta ohiko enpleguan buru nahasmendua duten pertsonak kontratatzekeo pizgarriak ematea.**

Beharrezkoa da Foru Aldundien eta Udalen enplegu- eta gizarteratze-eremuetatik **buru nahasmendua duten pertsonen enplegua bultzatzea eta lan-eskaintza publikoan ekintza zehatzetan eta laguntza-neurrietan islatzea.**

6. LANDA-EREMUEI BALIABIDEAK EMATEA

Landa-eremuei buru nahasmendua duten pertsonentzako baliabideak ematea.

Baliabide falta horrek ondorio hauek ditu:

- Buru osasun arazoak dituzten pertsonen **deserrotzea**, beren udalerrriak eta gizarte-ingurunea utzi behar dituztelako, eskaintzen zaizkien baliabideak hiriburuan edo udalerrri handietan daudelako, eta, beraz, mugitu eta beren inguruetik urrundu egiten direlako.
- **Irisgarritasun falta eta desgaitasunaren gailkostua.** Landa-eremutik eguneko edo asteko baliabideetara joaten diren pertsonen kostu ekonomiko handiagoa euren gain hartu behar dute. Gainera, kasu askotan **ez dago garraio publiko arinik ordutegiei, garraioaldaketei eta abarri dagokienez.**

Horrek guztiak landa-ingurunea uztera eramaten ditu pertsona asko. Hori dela eta, **beharrezkoa da gizarte-zerbitzuak inguruko pertsonengandik hurbil egotea eta zerbitzuetarako sarbideak erraztea, garraio espezifiko baten bidez**, beharrezkoa denean, bai eta irisgarritasun gutxiko eremuetan ekipo mugikorrek esku hartzea ere.

7. GENERO-BERDINTASUNERANTZ AURRERA EGITEA

Gizonen eta emakumeen arteko berdintasunak politika publiko sendoak eskatzen ditu. Emakumeek desberdintasun eta diskriminazio handiagoa jasan behar dute, eta, beraz, beharrezkoa da emakume guztien desberdintasunari aurre egingo dioten politikak garatzea. Interseksionalitateak politika horietan egon behar du, eta emakumeek dituzten ardatz diskriminatzaileak aztertu behar ditu. Buru nahasmendua duten emakumeen kasuan, generoaz gain, kontuan hartu behar dira eragiten dieten beste faktore batzuk, hala nola buru osasun arazoak, desgaitasuna, mendekotasuna, estigma soziala eta abar.

Gure elkarteek egindako azterlan batean³ egiaztatu dugu buru nahasmendua duten emakumeek parte-hartze txikiagoa dutela hainbat eremutan, eta, bereziki, enpleguan partaidetza-defizit handia dagoela. Buru osasun arazoak dituzten emakumeen aurkako indarkeriari buruz gure elkarteek egindako beste azterlan batek⁴ agerian utzi zuen buru-nahasmendua duten emakumeek jasaten duten indarkeria matxista. Hori jasateko arriskua gainerako emakumeek baino 2 eta 4 aldiz handiagoa da. Ikerketaren arabera, halaber, buru nahasmendua duten emakumeen % 80k indarkeria matxista pairatu du bizitzan zehar.

Emakumeen parte-hartzean edo indarkeria matxistaren prebentzioan eta arretan funtsezkoa da emakumerik atzean ez uztea. Hala, buru nahasmendua duten emakumeei dagokienez, beharrezkoa da haien parte-hartzea eta ahalduntzea bultzatzea. Gainera, indarkeria matxistaren biktima diren emakumei behar dituzten eta beren egoerara egokitutako laguntzak eman behar zaizkie, inolako bazterketarik gabe, buru nahasmendua dutelako.

Familia-zainketei dagokienez, nabarmendu behar da buru nahasmendua duten eta guraso nagusiak zaintzen dituzten emakume asko daudela⁵. Bestalde, zainketen eremuan, buru nahasmendua duen pertsona batek familia-zaintzak behar dituenean, gehienetan emakume batek ematen ditu zaintzak, normalean amak, eta urte askoan egiten du zaintza-lan hori⁶. Hori dela eta, foru eta udal politika publikoek, zainketei dagokienez, kontuan hartu behar dituzte errealitate horiek, zeregin horiek betebeharrak izateari uzteko eta aukera bihurtzeko.

Arreta, polizia, epaiketa eta abarren eremuetan genero-ikuspegia kontuan hartzen duten politikak eskatzen ditugu. Bereziki eremu soziosanitarioetan eta indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko eremuetan, buru osasunaren ikuspegia hartu behar da kontuan.

³ Fedeafeseko emakume eta gizonen parekidetasunaren aurrean duten egoeraren diagnostikoa, 2012, Fedeafes

http://www.fedeafes.org/wp-content/uploads/2015/03/Fedeafes_emakumeen-ahalduntzea_aholkuak-eta-ondorioak.pdf

⁴ Buru gaixotasuna duten emakumeen aurkako indarkeriari buruzko ikerketa, 2017, Fedeafes

<http://www.fedeafes.org/wp-content/uploads/2017/12/Emakumea-eta-indarkeria-azterlana.pdf>

⁵ 3. oharra ikusi

⁶ Familiei buruz egin dugun azterlana (oraindik ez dago argitaratua)

8. IRRISGARRITASUN UNIBERTSALA ETA OZTOPOAK EZABATZEA

Nahasmendu mentala duten pertsona batzuek oztopo kognitiboei aurre egin behar diete, eta, horretarako, komunikazioa hizkuntza errazago batera egokitu beharko da. Beste kasu batzuetan, parte hartzeko laguntza beharko dute. Beharrezkoa izango da laguntza hori bermatzea. Izan dezaketen beste arazo bat arrakala digitaletik etor daiteke. Administrazioek darabilten eraldatze digitala dela-eta, beharrezkoa da sarbide digitaleko sistema errazak egitea eta beste sarbide batzuk planteatzea, inor atzean ez uzteko.

Oztopoak fisikoak, kognitiboak eta sentsozialak izan daitezke, eta buru nahasmendua duten pertsonen kasuan, estigma sozialetik eratorritako **diskriminazioa da oztopo nagusia; oztopo ikusezina** da. *Estigma soziala EAEn buru gaixotasuna duten pertsonen artean*⁷ azterlanean ateratako ondorioetako bat bizi-kalitatearen dimentsio guztietan nahasmendu mentala duten pertsonen estigma sozialak pertsoneri eragiten diela da; eskubide-gabezia eta diskriminazioari buruz ari gara. Horregatik, beharrezkoa da erakundeen arteko estrategiak azpimarratzea, nahasmendu mentala duten pertsonen jasaten duten diskriminazio hori desagerrarazteko edo minimizatzeke.

Konbentzioak gobernuei emandako agindua eskubideak egikaritzea eragozten duten oztopoak ezabatzea da.

Pertsonentzako irisgarritasun unibertsala bermatzea eta ageriko zein ikusezinezko oztopoak ezabatzea proposatzen dugu. Era berean, nahasmendu mentala duten pertsonen estigma soziala desagerrarazteko euskal estrategia lantzea proposatzen dugu.

Foru eta udal esparruei irisgarritasun unibertsala sustatzeko eta estigma soziala desagerrarazteko estrategian inplikatzeko eta ekintzak diseinatzeko eskatzen diegu.

9. FAMILIEI BABESA

Familiak dira, gaur egun ere, buru osasun arazoak dituzten pertsonentzako laguntza eta zainketen hornitzaile nagusia. Laguntza horietaz arduratzeak eragina du pertsona horien ongizatean (osasuna, lana, denbora libre eta aisialdia, ekonomia, etab.), eta, askotan, ez dira behar bezala baloratzen, ezta ikusarazten ere.

Etengabeko zaintzak eragina du senideen osasun fisiko eta mentalean. Horregatik, laguntza eraginkorrek eta espezializatuak behar dira familia horientzat. Horiek, zaintzaileei laguntzeko politika guztietan sartu behar dira, bai eta erakundeak (udalak, aldundiak eta autonomia-erkidegoak) zainketei buruz egiten ari diren hausnarketetan ere. Hori guztia zainketen ikuspegitik jorratu behar da pertsonaren bizi-ibilbide osoan, pertsonen bizitzaren azken etapetan egiten diren zainketetatik bereiziz; izan ere, behar guztiak ez dira berdinak. Beraz, laguntza desberdinak beharko dituzte.

Gai garrantzitsu bat senidearen egoerari buruzko informaziorik ez dagoela da, ez eta eremu desberdinetan eta, bereziki, arlo sozio-sanitarioetan zein gizarte- eta hezkuntza-

⁷ Estigma soziala EAEn buru gaixotasuna duten pertsonen artean, 2013, FedeaFes
http://www.fedeaFes.org/wp-content/uploads/2014/03/FEDEAFES_Estigma-Soziala_EAEn-Buru-Gaixotasuna-duten-pertsonen-artean_azterlana2013_web-tx3.pdf

eremuetan egon daitezkeen laguntza-baliabideei buruz ere, familiek adierazi duten bezala.
8

Familia laguntza-zutabe garrantzitsua da gure gizartean. Horregatik, zaindu eta babestu egin behar da, pertsonaren laguntza-sare naturala desager ez dadin. Horretarako, familia horien errealitatea kontuan hartzen duten politikak behar dira.

10. OSASUN MENTALEKO ELKARTEKIN LANKIDETZAN ARITZEA

Buru Osasuna Euskadi federazioko elkarteak buru osasunean adituak dira. Ibilbide luzea egin dute, batzuen kasuan, 45 urte baino gehiagokoa. Horregatik, sakonki ezagutzen dute buru nahasmendua duten pertsonen eta haien familien errealitatea. Elkarteak herritarren partaidetzarako guneak dira. Kalitatezko zerbitzuak kudeatzen dituzte, errealitate horren inguruan sentibilizatu eta ikusarazten dute. Gainera, funtsezko laguntza-iturri dira pertsonentzat eta familientzat. Horregatik, erakunde-maila desberdinek kontuan hartu behar dituzte, parte-hartzea dinamizatzeko eta politika publikoetan errealitate horri buruz aholkatzeko, osasun mentalean adituak baitira.

Elkartheek premiazko egoera askori eusten diete, eta horietan administrazio publikoak ezin du elkartheek egiten duten berehalakotasunari erantzun. Gainera, baliabide publikoen erabilera egokia sustatzen dute, pertsonak baliabide egokienera bideratuz eta eremu sozio-sanitarioko talde profesionalekin koordinatuz. Komunitateari ematen diote zerbitzua, baita buru nahasmendua duten pertsonen eta haien familiei ere. Lan hori guztia baliabide ekonomiko egonkor eta egokien bidez babestu behar da.

Administrazio publikoekiko elkarrizketa zibilean parte hartu behar dute, eremu guztietan eta, bereziki, udal-eremuetan. Elkarrizketa horietan, errealitate horri buruz aholkua eman dezakete eta komunitate osoarentzako buru osasunari buruzko proposamenak egin ditzakete.

11. POLITIKA PUBLIKOEN ZEHARKAKOTASUNA

Politika publikoen zeharkako ikuspegia behar da, bi zentzutan.

Alde batetik, buru nahasmendua duten pertsonak eta haien familiak politika orokorretan sartzea, hala nola gogoz kontrako bakardadea (egoera horretan dauden buru nahasmendua duten pertsonak) eta zahartze aktiboa (buruko nahasmendua duten adinekoak) jorratzera bideratutako foru- eta udal-politiketan. Gainerako udal-politiketan kontuan hartu behar da zeharkakotasun horrek eragin positiboa duela gizarteratzean.

Bestalde, **buru osasuna udal politiken zeharkako ardatz gisa** txertatu behar da, eta hor, adibidez, garrantzitsua da **buru osasunaren sustapenarekin eta prebentzioarekin zerikusia duen guztia, udal erakundeek suizidioaren prebentzioarekin duten konpromisoa edo estigmaren eta diskriminazioaren aurkako estrategiak udal politiketan txertatzea.**

Ildo horretan, zeharkako politika publikoak eskatzen ditugu, eta gure elkarte-mugimendua tokiko erakundeei arreta ematen prest dago horri buruz aholkatzeko.

⁸ Buru osasun arazoak EAEko haur, nerabe eta gazteen artean, 2021- FedeaFes <http://www.fedeafes.org/wp-content/uploads/2021/12/FEDEAFES-eus-OK.pdf>